

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Turismoko Zuzendaritza Nagusiak Lufthansa konpainiaren bozgorailua baliatu du 110 herrialdetako publiko potentzialaren aurrean ezagutzera emateko


Ayerdi lehendakariordeak Nafarroako erakargarritasunak aurkeztu ditu Alemanian, airelineako zuzendarien konbentzio batean

Osteguna, 2018.eko otsailak 15

Nafarroako Turismoko Zuzendaritza Nagusiak Foru Komunitatearen erakargarritasuna zabaldu ditu, Lufthansa airelineako zuzendariari eta bere bazkide komertzialei zuzendutako ekimen batean, 110 herrialde eta 260 helmugatako publiko potentzialaren artean oihartzuna sortzeko helburuarekin.

Nafarroaren jardun komertziala Garapen Ekonomikorako lehendakariorde den Manu Ayerdiren aurkezpen batez osatuta egon da, non Nafarroako geografiaren eta gizartearen oinarritzko aspektuak eman dituen ezagutzera, gogoratuz, Frankfurt eskala egiten duten edozein herrialdetatik bisita daitekeela Foru Komunitatea. Gainera, marketin turistikoko informazioa banatu da ostegun honetan, ekimenean jarritako stand batean.

Ekitaldian Europako, Ekialde Ertaineko eta Afrikako airelineako exekutiboak batu dira, eta baita Lufthansa Taldeko hiru marka nagusietakoak: Swiss Airlines, Australian Airlines. Lufthansa konpainiako bazkide komertzialei zuzendutako ekimenak ere bertan izan dira, United Airlines, Air Canada, Air China, Singapore Airlines eta Nippon Airways konpainietakoak kasu. 110 herrialdetan eta 260 helmugatan lanean ari diren korporazioetako 120 pertsona baino gehiago. Hortik Nafarroak duen interesa, turista potentzialen segmentu zabal batean eragina izan dezaketen pertsonen bitartez proiektatzearen, Frankfurtko loturaren bitartez.



Ayerdi lehendakariordea Frankfurt, Nafarroa turismo-helmuga gisa aurkezten.

Turismo-eskaintzari buruzko informazioa eman da Nafarroako standean, alemanez eta ingelesez. Horretaz gain, Foru Komunitateko informazio orokorra ere zabaldu da, datu demografikoak, bizitza-estandarrak edo ekonomia ireki eta industrialia izatea kasu, zeinak turismoan daukan bere garapen-estrategikorako ardatzetako bat. Baliabide turistikoak dagokienez, bereziki nabarmendu dira Santiago Bidea, tokiko kalitatezko produktuetan oinarritutako gastronomia, folklore aberatsa eta landa-turismoko eta natura-turismoko eskaintza aberats bat.



Nafarroako standa Frankfurtan.